

AMESEN ILDOTIK

ZUBIRI'TAR IÑAKI

AMESEN ILDOTIK

EUSKERAZAINTZA

ZUBIRI'TAR IÑAKI

*Larraza - Labola suar-suar-teai
adiskide ta suer.*

Iñaki

AMESEN ILDOTIK

EUSKERAZANTZA

OARRA

Olerki-txorta onetan, baita lengo "Bidetik Amesetan" txortan be, irakurleak jakin bear dau, dalako "sinalefa" darabildala beti, neurriari dagokionetan.

Irakurlea jakiñaren gaiñean egongo da, urrean, zertan datzan ori, baiña bada-ezpadan, ona emen orren azalpena:

Itz baten azken gedin edo bokala, urrengo itzaren lenengoarekin batzen danean, "sinalefa" egiten da. Azaldu dagidan au adibide bikaz.

Etxeko txori abeslaria

berez amar izkin edo silaba ditu, baiña "txori"ren azken i "abeslaria"ren lenengo a'rekin batzen danean, "sinalefa" dogu, bederatzi izkinkoa biurtuz.

Gure olerkaria

berez zazpi izkinduna izanik, "gure"ren e, "olerkaria"ren o'rekin batzean, sei izkinduna billakatzen da.

Esandakoaz uste dot, irakurleak jakingo dauala zelan neurtu nire olerkiak. Oneik atsegin dakiozala gurariaz, nire agurrik txeratsuen.

Egilleak

AURKIBIDEA

GALDURIKO ASPERENA	7
ILLUNTZEAN	8
AUR GOSETIA	9
BASO-OLERKARIA	11
NOR IZANGO...!	13
ATSEDEN MIÑAZ	15
JOALEA	16
EZ NAGIZU ITXI	19
IPURTARGIAREN JAIOTZA	20
BIDEAN ZEAR KANTARI	22
EDUR-MALUTA	24
URRETXINDORREN KABIA	26
BILLOBATXUA	28
URGELDIAN	30
ITZALEN ZAURIA	32
NORA...?	34
OILLARRA	36
ENARA	38
NOR DABIL OR...?	40
IRETARGI GORRIA	43
ERMITAKO JOALEA	44
LORA ZAPUZTUA	46
OLERKARIA	49
BAKARTASUNA	50
IZAR LAZTANGARRIA	52
GALDURIKO IZARRA	53
URTE-AROAK	55
KATAMIXARRA	60
TALA'KO NESKATILA	61
ILDOTIK ESKEAN	63
SAMUR ETA EZTIA	65
LARRAKO ZEZENA	66
ARIÑENA	69
IZAR BATERI	70
LUMATXUA	72
ETORRIA (IRADOKIA)	74
ZARTZAROKO ITUNTASUNA	76
ORBELAK GALTZEAN	78

ZORION-BILLA	81
ITURRIKO LEIARRA	82
MALKO-IZARRA	83
DILIN-DALAN	85
KABI UTSA	87
IRRIBARREA	89
ISILDUZ DOA	90
BALE-ONTZIA	92
IRU IRETARGI	94
GUDARIAREN AMESAK	95
OIÑAZEAREN EGOAK	99
MAITASUN EZIÑA	101
MAITASUNEZ IL ZAN	103
AMAMAREN OBAUBA	104
AMESEN ERIOTZA	106
ATZO-MIÑA	108
OLERKARIA ODOLETAN	110
IÑONTZA	113
ISILLAREN OTSA	114
ODEI GORRIZTAK	117
GOIZABARRA	120
ILLUNABARRA	122
ATZERRIAN.....	124
BETI BEGIRA	126
ITXARON NAIZU...!	127

GALDURIKO ASPERENA

Gau-kolkotik zoazan
asperen isiltia,
ezustez sortu zaran
antzi garbi izutia;
oiñazetan zatozan
biotzeko lilia,
ez galdu itxaropena
nire kutun maitia.

Lurrean galtzen diran
biotzaren antziak,
zuzen doaz zerura
urrun-miñez eriak.
Izarrak laztantzean
isil eta geldiak
gentza idoroten dabe
amesetan suntziak.

Gau-kolkotik zoazan
malko-asperen galdua,
billatu zure izarra
an ortzian bildua.
Begira dozu beti
illunetan mutua,
emoiozu polliki
ames baten musua...!

ILLUNTZEAN

Aizean zear geldi-geldi
soiñu bat ostentzen da oiñazez,
eta zeruan asperenka
artizarra dager dardarrez.
Odolduriko eguratsean
ozkorria ilten da sukarrez,
urrutian suntziten dala
eguneko argia negarrez.

Otoi isillaren antzera,
bake-deia zerura doa,
gogoan sentitzen dodala
iñondik yatordan mintzoa.
Ego illaunaz inguratzen nau
suzmur zerutarra lakoa,
eta neu konturatu barik
amesen mundura naroa.

Eresi bat ortzian gora
aditzen da jaio-barria,
eta nire biotz-barruan
oartzen dot laztangarria.
Jaunaren altzora narooan
olan jaiotako olerkia,
illunabar isil onetan
oartzen dot bizi ta argia.

AUR GOSETIA

Aur txiki gaixoa
gosez eroria,
galduriko lora
maitetxu neuria.
Noiz adituko da
zure aiene etsia,
nork laztanduko ete
zure sointxu itzia...?

Begiak dituzu
joranezko-garrak,
gabean ñir-ñirka
aurpegiko izarrak.
Noiz suntzitikoa dira
zure izu-dardarrak,
nork entzungo ete
zure antzi-negarrak...?

Azur-meta itzia,
zimurrezko azala,
basadiko umea
isil eta apala.
Noiz jagiko da
zure sointxu argala,
nork ikusiko ete
zure irudi utsala...?

Aiene bizitan
urrutiko izarrak
ez dagikez garaitu
asperen-nigarrak.
Zeugaitik, laztana,
pairamen-didarrak,
zeugaitik, umetxu,
oiñaze gautarrak.

Dizdir yaukaletan
yatortzu ederrena,
zure begientzat
argi-itxaropena.
Betseiñetan dozu
zeruko ikusmena,
berak baidakartzu
zorion gorena.

Aur txiki gaixoa
gosez eroria,
galduriko lora
maitetxu neuria.
Aditu da noizbait
zure aiene etsia,
ta osatu betiko
zure sointxu eria...!

BASO-OLERKARIA

Sasipean isillik dago
basoetako txoriñoa,
soin ezaiña ikara bizitan
begiak itxita gaixoa.
Pozaren-pozez ari zala
zeruari abesten zoroa,
atzetik eiztari zitalak
eten egin dautso mintzoa.

Moko-erpiñean dingilizka
errubi ederraren antzera,
odolezko tanto dario
ozkorri biziaren txera.
Bide-ertzean geldirik dago
ego bat jausita lurrera,
eguzkia jausten danean
arratsaldeko ortzian beera.

Gorosti-adar baten gaiñean
txio ta txioka ari zala,
ezustez urreratu yakon
gizaseme baten itzala.
Biotz-ondoan zauriturik,
indar bagerik eta utsala,
jausi zan lurrera ezinduta
basoko abeslari yaukala.

Il zan gaberdiko illunpetan
argi barik eta dardarrez,
goian izarrak egozala
oiñaze bizitan negarrez.
Errubiko txirlarri ederrak
lurra orbandu eban odolez,
eta gabeko olerki isillak
txoriaren lumak iñontzez.

Negarretan dagoz
baso ta zelaiak,
naigabez eta itun
mendiko tantaiaik.

Itzungi da itzungi,
basoko eresia,
zabaldia dago
oiñazez etsia.

Bera zan goizean
izadiko esnale,
illuntzeko orduan
arrasti-maitale.

Zendu zan gaixoa
gaberdiko altzoan,
errubi bat dardar
ertsitako aboan.

Negar egizue
zeruan izarrak,
asperenka bediz
zugaitzen adarrak.

Aizeko intziria
negar-gura etsian,
aieneka dabil
goizabar-irian:

-Isildu da, isildu,
zeru-kantaria,
itzali da, itzali,
baso-olerkaria...!

NOR IZANGO...!

Nor...

Itsaso urrutiko suzmurra
lo dagon ondartzari
kresalez urrumaka
apar gozotan laztangarri.

Nor...

Oianeko tantai txairoan
ostoaren suzmurra,
eguratsean jaurtiz
udabarriaren agurra.

Nor...

Errekatxu garbi goitarra,
zabaldi isiltsuari
bitxiak emoteko
mendian beera jauzikari.

Nor...

Iretargiaren izpia
mendi-erpin aztuari
zidarrak eskintzeko
gauko gentzaren amesgarri.

Nor...

Pairamen-aringarria,
biotz oiñazetuak
ezagutu daiazan
maitasunaren ezkutuak.

Nor...

Izarren aize bidaria,
olerkari amesleri
goi-arnasa ekarteko
biotzaren eragingarri.

Nor...

Euskalerriko urretxindorra,
aberri laztanari
euskera berpizteko
munduan zear mintzalari.

Nor...

Geldi-geldi amesetan datzan
ur-loen ispillua,
gabean igurikan
izar baten laztan galdua.

Nor...

Gora dagian otoitza
maitasun-billari,
Jaunagan asetzeko
zorian bizien mirari...

ATSEDEN-MIÑAZ

Atsedeen-miñaz ilten da eguna
urrezko gorritan;
basoko isilletan
itxarten da nire maitasuna.

Joan dira mendilko txingarrak
gorrizko itzaletan;
atzoko oroitzetan
nire begietara nigarrak.

Nonai dantzut egun-eriotza
gabeko illunditan;
irrika bizitan
atzo-miñetan yabilt biotza.

Billusturiko zugaitz tantaia
bidean oiñazez;
neguko dardarrez
urreratzen yoat nire amaia.

Odei illun arre egalariak
aize-magalean;
nire barreanean
sentitzen dodaz igeslariak.

Bitargitan zear illargia
bideari agurka;
geldiro ñir-ñirka
yatort bere txirlarri garbia.

Atsedeen-miñaz ilten da eguna
urrezko gorritan;
basoko isilletan
ene biotzera maitasuna.

JOALEA

Joale, joaleiño,
erriko beilaria,
laiñoan galduriko
soiñuen miraria.
Biotzean zaukadan
olerkari neuria,
ekarstazu asperen bat
maitasunez eria.

Nire oroitz kutunenak
egan dagi zugana,
noizbait idoroteko
maite-maite nebana.
Ene amesen seaska
izan zindudazana,
jo niretzat barriro
zure brontzezko arrana.

Ekarstazu ostera be
amaren mintzo argia,
zerura nindaroan
bere eresi garbia.
Urrez bete egidazu
urteen uts andia,
eta zidarrez ase
zorion-egarria.

Zure abotsak dakarstaz
laguntxuen didarrak;
ai ene, non dagozan
galdu ziran izarrak...!
Garden dakustaz orain
sute alaiaren garrak;
geldi zaitze enekin
atzoko irri-negarrak.

Biotz-barruan zaukat
amesen kantaria,
jo egizu gaur niretzat
zure leiar-aria.
Apa-laztandu naizu
joaletxu neuria,
idoro daidan noizbait
nire oroitzen bitxia.

Esaidazu joale,
larran ete kantari
kilker ijito areik
oi bezela ari ta ari.
Olan ba'litz, artuizu
nire biotz-eskari,
jo dagien niretzat
euren zidar-mirari.

Esaidazu, enetxua,
ume musu-gorriak
jolas ete dagien
arin eta biziak.
Ekarstazuz barriro
arein didar zoliak,
bare dakidazan gaur
bakartasun-zauriak.

Esan, dorre-txoria,
neskato begi-otzanak
oindiño ete dabezan
betseiñetan laztanak.
li lakoak ziran,
palmondo baltzaranak,
lili garbi politak
gaur niretzat joanak.

Esan egistazu, arren,
joale abeslaria,
zutik ete dagoan
itzi neban abia.
Eresiz esaiozu
astiro ta garbia,
biotzean dodala
maitasunez josia.

Laztanduizuz, maitero
nire guraso-obiak,
an bakean baidagoz
aspalditik suntziak.
Zure ots eztitsuekin
nire otoitz isiltiak,
bil gaitez an zeruan
betirako biziak.

Joale, joaleiño
dorrean begirari,
aizearen altzoan
eresien sorkari.
laztan naizu polliki
nire aingeru abeslari,
bear zaitut, ai ene...!
nire atzoko oroigarri...

EZ NAGIZU ITZI

Bera ikusi dot, ikusi,
etorrela niregana,
irripar samur aboan
masailletan lora bana.
Begiztatzen ninduala
usapal baizen otzana,
barruan sentitzen neban
aingeru baten lazтана.

Oi biotzeko
argitxu-izpia,
begira idazu
nire maitia...!

Bera aditu dot, aditu,
ibillera malgu ariñez
eresitan joiala
biotz bete atsegiñez.
Maitederra zirudian
bizitzan zear joranez,
baso-mendiak laztanduz
udabarrien ederrez.

Nire arimarako
arnas bizia,
zu barik nozu
betiko itzia.

Bera gelditu zan, gelditu,
astiro urbiltzen yatala,
izarrak begi ederretan
aboan lora yaukala.
Gelditu nintzan dardarrez
besarkatzen ninduala,
biotza lertu-agiñean,
soiña zorunez erbala.

Ez nagizu itzi
maite neuria,
osatu idazu
nire zauria...!

IPURTARGIAREN JAIOTZA

Zeruan zear artizar bat
ames urdiñetan joiala,
ustekabez etorri yakon
urrunditiko dei apala.
Ara bideratu zan azkar
edertasun-bitxi yaukala,
bere argizko ildoan bai litzan
zidar-dizdir baten zozpala.

Arkaitz batek eskatu eutsan
jar zeitekion gaillurrean,
txori gaixoak argitzeko
neguko bidaldi luzean.
Baiña lotan joian izarra
ames zoroen magalean,
igaro zan gelditu barik
ezabatzen zala isillean.

Gelditu zeiten antxe bertan
portu zaarreko talariak,
gau-ekaitzetan gidatzeko
arrantzale ta itsaslariak.
Baiña jaramon egin ez
goiko artizar ameslariak,
aditzen zala illunditan
kaio baten oiurriak.

Deslai ebillen-bidariak
ikusi eban argiño arrotza,
eta eskatu eutsan arrenka
adoretu egion biotza.
Baiña lotan joian izarrak
entzun ezin aren aiotsa,
irribarreka ta amesetan
zeartzen ebala gau otza.

Bidea argitzeko ari yakon
mendiko neska bakartia,
etorri ekion goi-larreko
artzain txairo maite-maitia.
Baiña entzun barik igaro zan
urrundiko artizar garbia,
galtzen zala naigabe etsian
neska politaren antzia.

Illundiko itzalen artean
naigabez ebillen lipua,
sointxu orlegi dardarretan
orok aztutako gaixua.
Bidezkan zear aztamuka
itxaropen barik itsua,
aiene biguna urten yakon
gau amaibakoen izua.

Entzun eban izar galduak
amesen altzoan joiala,
eta ustekabez gelditurik
billatu eban intziri apala.
Besarkada bat emon eutsan,
goizaldea baizen yaukala,
baiña laztanaz batera il zan
izarraren argi-zozpala.

Ez zan betiko itzungi, baiña,
zeruko izar urrundaria,
erio-orduan jaio baizan
ames galduen miraria.
Danek aztutako lipua
biurtu zan gau-gidaria,
argi orlegizko krisaillua,
dizdir gozozko ipurtargia...

BIDEAN ZEAR KANTARI

Illuntzean joan nintzan
bidean zear kantari,
ene gogoia izarretan
soiñu-artean ameslari.

Maite bat ikusi neban
bidean zear kantari,
ta biotza eskiñi neutsan
zorionez dardarkari.

Erantzuna itxaron neban
bidean zear kantari,
baiña bera isil-isillik
urrundu zan isekari.

Jarraitu neutsan zoroki
bidean zear kantari,
etorteko niñotsala
biotz larriz arrenkari.

Galdu neban itzaletan
bidean zear kantari,
sentitzen nintzala ostera,
ildo aztuetako bidari.

Dei egin neutsan oiñazez
bidean zear kantari,
biurtu zeiten nigana
maitetsu ta urrumalari.

Isillak erantzun eustan
bidean zear kantari,
bakartasun-ulu itunak
eriozala aizeari.

Bizitzara jaio nintzan
bidean zear kantari,
argia amaitzen yakola
nekaturiko egunari.

Banoatzue etenbarik
bidean zear kantari,
negarrak ez baidarioz
ildoko ameslariari.

Aztu yatazan malkoak
bidean zear kantari,
baita naigabe ta arantzak
nire barruko isillari.

Eta olan beti amesetan
bidean zear kantari,
egun baten eriotzak
eroango nau errukari.

Jaritsiko dot orduan
bidean zear kantari,
munduak uko egin eustan
maitasunaren mirari...

EDUR-MALUTA

– Nora zoaz orren arin
edur-maluta egoduna,
nora zoaz egan da egan
neguko alaba kutuna...?

– Goi-dei bateri jarraituz
mendi-gaillurrera noa,
musu bataz edertzeko
aren bakartasun-loa.

– Geratu zaitez nirekin
zabaldiko malko aratza,
zure begira baidozu
etxe onetako baratza.

– Odeiaren alaba naz,
aize-mirabe zoroa,
ur-tantotxu ezaiña nozu
goitasun-miñez geisoa.

– Ez urrundu beste iñora
ego zurizko bitxia,
bear zaitut baratzean
neguko negar aantzia.

– Eten barik entzuten dot
gaillur baten dei larria,
aspalditik igurikan
nire apa-laztan barria.

– Naigabez lo egin eziñik
antzika dozu lilia,
emoiozu igarotean
zure maitasun-bitxia.

– Mendiko tontor batera
dei bizi batek naroa,
ta orregaitik gelditzeke
aregana iraduz noa.

Mendi-gaillurra dot
beti ene begira,
deika dantzudala
intzira ta intzira.

An geratuko naz
zuritan etzana,
igurikan nozbait
eguzki-laztana.

Udalen-musuak
goizalde batean,
ur biurtuko nau
zeru gardenpean.

Izango nozue
basadiko aparra,
nonai barreiatuz
iturri-negarra.

URRETXINDORREN KABIA

Pipil bat ikusi neban
intz-arteon irribarrez,
goizaldean jaio zana
len-argiaren ederrez;
errubi bat zirudian
odol biziko sukarrez.

Arrastian biurtu zan
larrosa zoragarria,
illuntzeko magalean
edertasun-aldarria,
eta gau-leneko gentzan
erregin yaukal barria.

Urrengo goizean goizik
egunsentiaz batean,
ostendua zan larrosa
bide-ondoko baratzean;
joana zan lora ederra
argia jaio zanean.

Izango ete zan, agian,
bidari baten eskua
zakar ostu zinduana
larrosa maite gaixua,
amesetan zengozala
intz-malkoz inguratua...?

Izango ete zan, ostera,
gabeko ekaitz basatia
ostu zinduan lapurra,
nire larrosa maitia,
usaiñetan zengozala
asperenka ta isiltia...?

Izango ete zan, laztana,
gau baltzaren atzaparra
odolgetu zinduana
larrosa bikain goiztarra,
zeru-beilan zengozala
igurikan zure izarra...?

.....
.....
.....

Amesetan egoala
gabeko gentzan suntzia,
txori batek lapurtu eban
gorri biziko lilia,
bere atalez estaltzeko
lizar tantaiko kabia.

Aska ederra sortu zan
ostutako lora-ontzian,
eta goiz bateko argiak
jaioten zirala-ortzian,
bost urretxindor egozan
lizar tantaiko abian...

BILLOBATXUA

Etxeko txori abeslaria
nire gogoen pozkaria,
lili-musutxua
izar dizditsua,
gau itzaltsuan gidaria,
goizalde baten miraria.

Biotz nekatuen argia,
nire neguan eguzkia,
maitasun-ereintzaz
itxaropen-aintzaz,
legundu dozu ene zauria
billobatxu kutun neuria.

Zure irripar gozo-gozoa
arimarako dot garoa;
argizko bitxia,
zatozkit, maitia,
emoistazu pa beroa
bizkortu dakidan gogoa.

Ez negarrik egin, laztana,
erdu ariñeketan neugana,
esan zergaitikan
negarrez zakustan,
irautsi eidazu dana-dana
nire aingerutxu baltzarana.

Txukatu zure aurpegiñoa
orain malkoakaz ezoa,
ez bai dot eroan
zu minduta alboan;
piztu bedi zure betoskoa,
alaitu ene biotzondoa.

Nire aurrean ez dot geroa,
laiño-artean dakust atzoa,
baiña zure argiak,
aurtzaro-liliak,
oi nire ames gaixo zoroa...!
ego dizdiratsuz naroa.

Tximeleta-antzeko zara,
aizean dardar gorrikara,
or-emenka urduri
gar txikia iduri,
zure ezpanetan irriparra,
begiotan maitasun-garra.

Joten baldin ba'zaitu eriak
isillean gagoz guztiak;
orduen luzea
eta naigabea...!
Zure begi kiskalgarriak
nire oiñaze larri-larriak.

Batzutan asarratzen gera
baiña bitargien antzera,
bazatuz nigana
kutuntxu laztana
billatuz pa gozoen txera,
nire txikitxu maitebera.

Ez zaituz urrundu, maitia,
bear zaitut, neure-neuria,
usapal otzana
maiteen dodana,
zu zara ene atsegin guztia,
berotzen nauan eguzkia...!

URGELDIAN

Itxaropenez betea
ederra zan-goizaldea...!
Arima goian
abesten joian,
Aintza goreneko unea
poz-atsegiña neurea...!

Aren begi-nini eztiak
ur-loan bide geldiak
niri begira
biotz-pilpira,
ariman izar andiak
krisaillu bizi maitiak.

Urgeldi baten ertzetan
olantxe mintzatu yatan
abots ezitsuz
niri laztanduz:
"Alde eiteko ordu larritan
biotza yabilt antzitan".

Illuntze bateko altzoan
oi legez urgeldi-ondoan:
"Erdi nigana
biotz-lasztana".
Baiña iñor ez nire alboan,
dana isillik gau-lanbroan.

Ordudanik arrats oro
deika nago itsu ta zoro:
"Esan zergaitik
orren isillik...!"
Urgeldi-amesak gozoro,
itzi nauala betioro...

Bein da barriz urgeldian
dei dagiot etsi-etsian:
"Non ete zara
zu nire izarra...?"
Baiña alboko zabaldian
dana isillik arrastian.

Ur oztiñetako abia,
bera ba'letor, maitia...!
esaiozu, arren,
ez nagola emen,
banazala antzi urrutia,
ildako anots izutia...

Ez nau idoroko ertzean,
baiña ni ikusi-naiean,
zure ur garbitan
ames gelditan,
banakuske bizi antzean
eguna ostentzen danean...

ITZALEN ZAURIA

Oiñots illaunaz zatozan
arrastiko argi biguna,
geratu zaitez nirekin
zeru-dizdir urreduna.
Zu barik izuz bainabiltzu
gogoa larri ta ituna,
zu barik ez dot bizi nai
neure begien kutuna.

Bildur naz, bildur, ai ene...!
urreratzean isillez
gabeko besana illuna
arima-argiak eraillez.
Orduantxe sentitzen naz
izu bizian dardarrez,
asperen geldi isilletan
asten nazala negarrez.

Gabeko leize itzaltsutik
sagu-zaarren antzekoak
izu-erreskadan yatordez
nire galduriko atzoak.
Noiz ezagutuko ditut
itxaropenez zoroak,
inguruko illunpetan
apa-laztanen egoak...!

Noizean bein ezustean
agertzen yataz izarrak
ortzian zear igorritz
mezu baten irriparrak.
Baiña arin biurtzen dira
aztutako lora igarrak,
barriro astintzen nabela
dardar otzeko nigarrak.

Ez naizu bakarrik itzi
arrats-beerako bitxia,
bildur naz, bildur, ai ene...!
gogoa baidot autsia...
Laztandu nire oroimena
maite zaitudan argia,
uxa nigandik urruti
gabeko itzalen zauria...!

NORA...?

Ez dot ikusten jadanik
ikastolako bidean,
aurpegian poztasuna
zoriona biotzean.

Albotik igarotean
eskintzen eustan agurra,
begietan irriparra
aboan keiñu samurra.

Nire oiko erantzuna artuta,
ariñeketan galtzen zan
txoritxu baizen alaia
ikastolako bidean.

Argi-izpia zan niretzat,
basa-txindor abeslaria,
udabarri-zatitxua,
bideko izar garbia.

Zoritxarreko egun batean
ostendu zan umetxoa,
eta ordutik galdu neban
goiztiriko agur goxoa.

Nora joan zintzakidazan
egunoroko bitargia,
nora egan egin zenduan
basa-txoritxu neuria...?

– Ez eizu billatu iñondik
zure urretxindor goiztarra,
joana da, bidaria,
maite zenduan izarra.

– Joan zan irribarreka
aingeruen magalean,
aurpegian poztasuna,
zoriona biotzean.

Ez dot ikusten jadanik
ikastolako bidean,
aingeruek artu zeuen
eurekin jolas egian...

Uts-utsik dago bidea,
antzika ertzeko liliak,
eta arrezkero naigabez
isildu dira txoriak...!

OILLARRA

Gabeko bakea astinduz
aditzen da oillar artoa,
ortzian iragarlean
ordu isillen igarota.

Bera baiño zeatzago
iñon ez ordularia
oker barik emoteko
egunsentiko aldarria.

Kukurrukuari jarraituz
esnatzen da eguna,
zabaltzen dala nonai
bere argi samur biguna.

Bost ardura goiztar oni
kanpai-dorreko jotea,
onartzen dauala soillik
Jaungoikoaren joalea.

Batetik bestera arduraz
billatzen dau jatekoa,
oilloai eskintzeko
maitasun biziz zoroa.

Batzutan erakusten dau
auresku baten zatia,
emazteek ikus dagien
zer dan benetako ertia.

Alboan ez dau onartzen
iñondiko beste oillarra
uxatu baileuke arin
tximista baizen azkarra.

Tontortxu baten jarrita
egongo da begirari,
beti gerturik izateko
zangartasunaren opari.

Aren gangar gorria da
gudari baten txapela,
danek ezagutu dagien
larrako nagusi itzela.

Gaba urreratzen danean
batzen dau bere sendia,
lo-agadian izan daian
atseden baten saria.

Izarretan igarteko
goizabarraren garaia,
erdi-lo dago gabean
kortako beilari ernaia

Baserriko egazti artoa,
gure etxeko esnale zuurra,
emendik bialtzen dautsut
nire ederrespen-agurra...!

ENARA

Enara, nire enaratzua,
ortzi argien-mezularia,
zatozkit arin egapera
an begira baidozu abia.
Ibillera ariñez badoa
neguko musu aspergarria,
zurekin urreratzen dala
jantzi urdiñezko udabarria.

Enara, nire enaratzua,
Eguzkiz jantzitako aparra,
zurekin ostendu da azkar
erauntsi ta edurren negarra.
Begira ta begira nozu
noiz entzungo zure didarra,
erne dakidan biotzean
ames zoro baten sukarra.

Enara, nire enaratzua,
egotik zatozan argia,
beti lez igurikan dozu
egapean dagon abia.
Erdi, urrutiko lurraldetik
goiz aratzen begiraria,
lorategian sortu daiten
larrosa baten miraria.

Enara, nire enaratzua,
lur urrutiko bidaria,
ortzitiko asperen ariña,
poztu nire etxeko ataria.
Leiotik pilpira bizian
begira naukazu, maitia,
erdu zaitez, erdu nigana,
zeru urdiñaren pozkaria.

Enara, nire enaratzua,
eguzkipean eldu zara
aize garden zear astinduz
zure atsegiñaren ikara.
Egun ederrak iragarriz
barreiatzen da zure algara,
nigandik urrunduz negua
egotik zatozan enara...!

Enara, nire enaratzua,
urrutiko irripar garbia,
jarri nire etxeko egapean
begira dagoan abia.
Onekin sortuko da neugan
itxaro barrien argia,
itzalak uxatuko dauzan
ames zoroen aldarria...!

NOR DABIL OR...?

Bidaldi luzean zear
argi bat dardar zoroan.
Urreratzen natzakio
itxaropena gogoan,
egun luzeko nekea
joango yatalakoan.

Dan dan...!

– Nor dabil deika gure gazteluko atean...?
zeren billa zatoz gaba asten danean...?

– Atsedeen billa natortzu
indar-mugan eta deslai,
ezin aurrerago joan,
ez naz ezertarako gai.
Artu nagizue gaurkoz
borondate onaz eta arrai.

– Etxe onetan ez dozu izango atsedeenik,
norberekeri-egoitza da betidanik.

Bidean gaindi noala
oian usua itzaletan.
Gelditzen naz une batez
itxaropen-dardarretan,
eta joranez gaiñezka
jo dagit aren ateetan.

Dan dan...!

– Nor yabilt joka gauko illundian,
zeren billa zatoz arrenkura andian...?

– Atsedeen-billa noatzu
gorputz eta arimarena.
Oe bat emon eidazu
zugandiko samurrena,
tantai baten pean datzan
jausitako orbelarena.

– Il yaku urretxindorra egunsentian,
eta orbelak joanak dira urrutian...!

Ibiltuari darraiot
nekez eta egarmiñetan.
Alako baten badantzut
iturri bat suzmurretan,
arririk-arri jauzika
leiar biziko eresitan.

Dan dan...!

– Nor urreratzen yat iraduz zoroa,
zeren billa zatoz bidari gaixoa...?

– Egarmiñetan natortzu
iturri gozo ozkirria,
zure altzoan asetzeko
uren irrika bizia,
bare egistazu Jainkoarren
kiskaltzen nauan egarria...!

– Nire uretan ez dozu izango asetzerik,
bekaitzak kutsutua naz jaiotzetik...!

Aurrera noa gabe
indar-mugan eta etsia.
Ustekabez bide-ertzean
argitxu bat dardartia
etxola batetik deika
motel eta erabetia.

Dan dan...!

– Nor dabil or gabeko altzoan galdua,
zeren billa zatoz gurera atzendua...?

– Gose ta egarritan nator
bareteke neke astuna,
baiña oroz gain billatzen dot
lagunen bero biguna,
nonbait igurikan dodan
galduriko maitasuna.

– Oso beartsuak gara, bidaria,
baiña artu gure maitasun eta ogia.

Emon eusten janaria,
bare yatan egarria,
maitasuna idoro neban
benetako ta garbia,
baiña oroz gain izan neban
sute anaikorraren argia...

IRETARGI GORRIA

Urten da iretargi gorria
odolezko altzoan joria.
Itzalek iruntsia,
zidarretan jantzia,
urrundik dakust nire erria
baketsu ta laztangarria.

irripar biguneko andrea
argitu egistazu bidea;
antxe dodan kabian,
besarkatu daidan
jaioterri maite-maitea,
umetaroko aska nirea.

Eroan naizu mendi-beera
gabeko erregin maitebera;
larradi-ariztietan,
errekatu-bitsetan,
iritxi naiten ene etxera,
galdu yatan goizabarrera.

Zatozkit illargi gorria,
laztanduizu etxeko untzorria,
oi lez zure igurikan
dardarrez eta irrikan.
An datza nire baserria
ene amesen udaberria...!

ERMITAKO JOALEA

Urrundik aditzen da
joale baten suzmurra
non-naira sakabanatuz
arrats yaukaleko agurra.

Ibar-zelaietan zear
otoi biguna lakoa,
biotzeraiño sartzen da
aren brontzeko mintzoa.

Goiko mendian jaio da
aize-laiñoen artean,
eguna illuntze-miñetan
iltzer sentitzen danean.

Aize-asperena bai'litzan
ostentzen da eguratsean
urrun-miñez jabeturik
itzalak urreratzean.

Iturriko-neskatilla
gelditzen da une batez,
eta gorantza begira
piztuten da maitasunez.

Arkaitzez-arkaitz datozen
iturriaren negarrak
biurtzen dauz laztantzean
suzmur galduen zidarrak.

Txori batek aditzean
areitzaren goikaldetik,
txio ta txioka asten da
eder-miñez zoraturik.

Zeruan zear zoazan
joale-jote gardena,
zurekin artu nagizu
bakezko mezu goren.

Goiko begirari zaran
basadiko joalea,
arrastiko gentzan zara
gure aberri-jagolea.

Urrundik aditzen da
joale baten suzmurra
ibar-zelaiak laztanduz
geldi-geldi ta samurra...

LORA ZAPUZTUA

Aizeak ekarten eustan
zure mintzaira garbia,
suzmur gozoetan joiala
laztanduz goizeko argia.
Zugandiko gomuta bat
eskatzen neutsan etsia,
baretu ekidan, ai ene...!
nire barruko zauria.
Baiña eresi gozoetan,
gau luzeko ames neuria,
urruntzen zintzakidazan
izten ninduzula eria.

Bazenkustan odeietan
zeruko oztin aratzean,
ildo isiltsuak zabalduz
oial-ontzien antzean.
Irripar bat niretzako
eskatzen neutsun gogoan,
gorde nengian betiko
nire gomuten barnean.
Baiña eguberdiko argian,
ames baten magalean
urruntzen zintzakidazan
maiteen zindudazanean.

Entzun zindudazan bizirik
latsaren ur gardenetan,
arririk-arri jauzika
aparrezko eresitan.
Ertzetik nenbillen zoro
arrenka ta didarretan,
oroitzen ete ninduzun
leiarrezko soiñuetan.
Baiña ezin ezer aditu
errekaren olerkietan,
sentitzen nintzala bakar
arratsaldeko isilletan.

Bidetik zentorkidazan
ibilte leun eta arinez,
baso-zelaiak apainduz
erizun zeruko usaiñez.
Nirekin gelditzeko, arren...!
niñotsun oiko joranez,
arindu ekidan nekea
zure begien ederrez.
Baiña illuntzeko ozkarbian
galtzen zintzaidan ezustez,
geratzen nintzala ostera
gogo-biotzak naigabez.

Gabak emoten nebazan
gogo illunetan itzarria,
noiz goizea agertuko
urduriz berantetsia.
Ta eguna egiten zanean
barrero itxaro larria,
jara apur baten begira
baiña betiko ezetsia.
Txakurra sentitzen nintzan
zitalkeritan suntzia,
txera-ondakin baten eske
eta destaiñez aantzia.

Noizbait, zentzuzko une baten
etorri yatan argia,
ustekabez ikustean
noraiño nintzan jausia.
Ordudanik joan yatan
ames zoroen tirria,
eten eginda betiko
jopu ninduan lokarria.
Berak ez eban merezi
nire maitasun garbia,
lokatzarentzat iñoiz ez
maitasun baten lilia.

Aize-altzoan yatorr orain
aren dei urrundaria,
joan nakion iraduz
ene begira larria.
Latsaren leiar-artean
badantzut aren antzia,
erdu nakion arinka
eskatzen daustala etsia.
Amesetan laztan daidan
datorkit bere intzeria,
orain sentitzen dalako
bakartasunez eria.

Gau isillean galtzen da
aren aiene larria,
orbel zoroa bai'litzan
udazkenak ekarria.
Lili bat eskiñi neutsan
biotzean sor-barria,
baiña zapuztu eban arro
nire larrosa gorria.
Urrundik datorkit orain
damuturiko aldarria,
baiña ez dot maite jadanik
aspaldiko zoragarria...

OLERKARIA

– Nora zoaz aiene ori
arrastiko magalean,
nora zoaz erosta ori
gora ta gora naiean...?

– Asperen galdua nozu,
alderrai doan antzia,
baretu eziñik, ai ene,
biotzeko oiñaze etsia...!

– Ez zaitez atsekabetu
illunabarko asperena,
naigabearen atzetik
baidator itxaropena.

– Ezin daiket menperatu
au nire oiñaze sarkorra...
egun sentian il yaku
aberriko urretxindorra...!

Joan da betiko
gure ameslaria,
ostendu da nonbait
erri-kantaria.

Negar egiozu
aberrilaztana,
itzali da, itzali,
maite zinduana.

Gure illunaldian
bera zan argia,
bera zan, ai ene,
gure olerkaria...!

BAKARTASUNA

Bakez beteriko isilla
txera antzeko zaitudana,
aize-altzoan artu naizu
amesen egoitzagana.
Jar eistazuz ego ariñak
illuntzeko alaba otzana,
jaritsi dagidan goian
izarren apa-laztana.

Gelditu bedi une batez
aldiaren esku latza,
betor neugana barrero
galdu neban bide-orratza.
Zaintzeko ba'neu ostera
nire izadiko baratza,
biotzarena litzake
artuko neuken ardatza.

Oinkada leunaz zatozan
gaurko ene bakartasuna,
arindu egistazu astiro
naigabeen lor astuna.
Ekar eistazuz gogora
oroitz maiteen zoruna,
nigandik uxatu daidan
oiñazeen txera illuna.

Bakartasun ezetsia,
ordu geldiko asperena,
jendeak gorrotu dautsu
zu zaitudan maiteena.
zeugan daurkidaz argiak
ta gaurko nire itxaropena,
besarkatu naizu maitero
aiskide zintzo gorena...!

Bakarmiñez zauriturik
bideetan zear noa,
areitan idoro-nairik
argi ta itzalen gozoa.
Bere ego gardenen billa
igesi yabilt gogoa,
laztanakaz bare daistan
au nire sukar zoroa.

Baso-itzaleko sorgiña,
arratseko argi-biguna,
bideko lagun isilla,
baretzen nauan inguma.
Esaidazu non zagozan
nire maitale kutuna,
esaidazu non zaitudan
bakezko bakartasuna.

Ekarstazu, nire maitia,
zure begiratze urdiña,
emon eistazu poliki
musu samur eta ariña,
sor dakidan biotzean
aingeruen eder-miña,
gai izan naiten jardesteko
goietako arnas eziña.

IZAR LAZTANGARRIA

Zeruko begirari
ene izar maitia,
zatoz gabeen zear
argitxu dardartia.
Zure begira nozun
maite-maite neuria,
arindu egistazu gaur
biotzeko zauria.

Gabeko magalean
artu nire didarra,
pairamena darion
biotzeko negarra.
Bialdazu laztan bat
maite zaudan izarra,
joan dakidan, joan,
arimako dardarra.

Galdu egin dot, ai ene...!
maite neban semea,
berarekin joan yat
arimako adorea.
Ederra zan, ederra,
nire euskarri ta abea,
areitz baizen tantaia
atx alako errimea.

Zeruko krisaillua,
aingeru urrundaria,
baretu egistazu, arren...!
nire oiñaze bizia.
Arima yabilt itun,
biotza dot larria,
erdu zaitez nigana
izar laztangarra...!

GALDURIKO IZARRA

Sabaiko zuloan zear,
Belen'go umetxu maitia
beila urdurian ari da
gaberdian itzarria.
Ezabatu da arestian
goizaldeko izar garbia,
betidanik izan dana
ortziko begiraria.

Astoak:

Ez larritu maite ori,
lo egin nire laztana,
diamante ederrez jantzi da
gabeko altzo baltzarana.
Intzaren negar isilla
zerutik dator otzana,
eta ortziko aintzapean
bitxiz estaltzen da dana.

Idiak:

Itxi egizuz begitxuok
umetxu maite neuria,
amatxuk izan dagian
gabeko atsedeen ezitia.
Entzuizu an urrutian
kilker baten eresia,
eta gorde biotzean
soiñu orren zidar bizia.

Yoseba'k:

Ez zaitetz arduratu, ume,
galduriko izarragaitik,
zure aurpegi orren ondoan
ez dago eguzki ez argirik.
Dozuzan begi-niniak
ez dabe ortzian bardiñik,
zeru-ispilluak dira
iñon ez bezelakorik.

Ama Birjiñak:

Zuzen zagoz, enetxu ori,
Belen'go laztan kutuna,
bart galdu zan zeruetan
argi eder baten zoruna.
Zu zara, seme maite ori,
galduriko izar urruna,
zu zara nire biotza,
gure itxaropen biguna.

Aurrak begiak ixten dauz,
eta estalpeko isillean
aingeru bat kokatzen da
askatxuaren aldean.
– Ai ene –diño aingeruak–,
min dot biotzean,
egunen bat izar au
ilgo da gurutz batean...!

URTE-AROAK

Badator udazkena
euri-laiño z jantzia,
ortziko argia uxatuz
goibel eta lotia.
Ez da ikusten jadanik
bide-ondoko lilia,
eta nonbait negarrez
isildu da txoria.

Aizeak erauzita
erori dira orbelak,
len zugaitz-asperenak
orain gorpuzki ustelak.
Billustu dira oianak
bakar eta mengelak,
isilletan leiatuz
argizko musu epelak.

Badoaz gelditzeke
odei arre garaiak,
etenbarik urtatuz
ibar eta zelaiak.
Orruka entzuten dira
arroituriko ibaiak
itsasora doazan
iraduzko bidaiak.

Laiñopean isillik
suntzi dira mendiak,
izarren laztan barik
maite-miñez eriak.
Bideak lotan dagoz
itun eta bustiak,
igurikan alperrik
gurdien txera eztiak.

Gaurko nire oldozkunak
orbel jausiak dira,
idoro ezin gogoan
zeruaren dizdira.
Gorako joran biziz
yabilt biotz-pilpira,
baiña argitara barik
jausten naz illundira.

.....
.....

Arnas baltza lakoa,
gaba baizen ituna,
etorri da negua
argi barik eta astuna.
Urrats ariñez dator
iparreko zalduna,
iraduzko ibilleraz
zemaikor eta ituna.

Bide-ondoko lorea
margo-bitxia zana
lurrera makurtu da
bizibage ta otzana.
Ikaraz eskatzen dau
musu epelen laztana,
baiña iparbaltz ankerrak
ez dantzu aren jorana.

Edurrezko soiñekoz
mutu dago basoa,
adar zimelak gorantz
antzi geldi lakoa.
Izotzezko kateaz
lotu da lats zoroa,
abestu eziñik orain
bere suzmur gozoa.

Il-urren eta isillean
geldi dago txoria,
begiak erdi-itxita
naigabetan eria.
An datza goizaldean
lurrean eroria,
biurtuta gaixoa
isillezko lilia.

Gogo-inguruan yabilt
aroko arnas illuna,
uxatu ezin dodala
barruko giro ituna.
Zatoz, argi gozoa,
zeru-dizdir biguna,
piztu ene biotzean
galduriko zoruna.

.....
.....

Zuri garbiz jantzirik
eta aboa irribarrez,
udabarria dator
urrats txairo ta ariñez.
Izadia pizten da
bera agertu baiño ez,
eta zeruko oxinak
margoztu dira urdiñez.

Bide-ondoan autsita
erori zan lilia,
barriro jagiten da
edertasunez jantzia.
Aize-laztanen pean
ames bizi-bizia,
eguzkitan dirudi
zelaiaren bitxia.

Dardar zorotan dagoz
baso-tantai lerdenak
barrutik sentitzean
kimuen asperenak.
Jauzi bizitan doaz
latsaren ur gardenak,
noranai barreiatuz
ipuiñik ederrenak.

Txori bat urdin-zear
eguzki-atzetik doa
maitasun-eresitan
atsegiñez zoroa.
Adar batean dago
bere lagun zintzoa,
biok ziurtatzeko
enda baten geroa.

Edurrak eta izotzak
nigandik suntzi dira
barrutik yatordala
laztan baten pilpira.
Irrika esan-eziñak
naroa goiko argira,
urretik sentitzean
maitasun-pozkira.

.....
.....

Udako altzo ederrean
iratzarri da eguna,
iñoizkorik yaukalen
argitan urreduna.
Joan dira negarrak,
ostendu da gau ituna,
eta zeruan dager
pozaren oiartzuna.

Tantaien adarretan
iratxoak antzera,
osto bigunak dantzan
aize urdiñez batera.
Mendiko errekatxuak
badatoz aldatz-beera,
legarrai emoteko
eresi baten txera.

Lorak kulunka ariñez
aize-otseiñak bai'liran,
ibarra edertzen dabe
zeru urdiñaren pean.
Tximeleta nabarrak
bitxiok ikustean,
samur kokatzen dira
zimeldu ez zeitezana.

Bizi-jorana abestuz
txori papar gorria,
abirantz zuzen doa
maitasun-aldarria.
Bost kume eder baditu,
sendi gortugarria,
baretu ezin gaixoak
gosea ta egarria.

Zorionez gaiñezka
izarren argipean,
ildoan zear noa
pozez lertu-agiñean.
Berak maite nau, maite,
goizalde ta illuntzean,
baita amesetan ere
gabeko gentzapean...!

KATAMIXARRA

Oiñezturi baizen bizkor
enborrean gora doa,
lumatxu illauna bai'litzan
gar geldieziña lakoa.
Aren buztana dirudi
suzko igurtziki zoroa,
adarrik-adar marraztuz
gar bizi baten ildo.

Galtzoriak uxatzeko
baditu belarri ernaiak,
atzazkal luze zorrotzak
eta aukerako tantaiak.
Begi dizditsu sarkorrek
ikatzeko bitxi arraiak,
gerturik antzemoteko
urbiltzen diran etsaiak.

Zabaldiko alaitasuna
gar gorrien dardarra,
adaburuen arteko
tximeleten aparra.
Lumabako egalaria
iratxo malgu ta azkarra,
zu zara, suzko asperena,
basoko katamixarra.

TALA'KO NESKATILLA

Iru mastako ontzia
bazter barrien billa,
itsas-zeur galdu da
portu-ondoko mutilla.
Kai-muturrean dago
naigabetan isilla,
malkoak begietan
Tala'ko neskatilla.

Itsaslari gazteak
pentsaten dau, gaixoa...!
dana berea dala,
legor eta itsasoa.
Atzera so egin barik
aize-magalean doa,
kresalak laztanduta
amesetan zoroa.

Gogoan jarten dautsoz
irudimen biziak
eskukadak bete urre
ta amaibako bitxiak.
Oialen asperenak
iñondiko eresiak,
uren suzmur galduak
amesezko olerkiak.

Ozkorria il zaneke
ur oztiñen altzoan,
sortu zan illuntzea
ikara-aldi zoroan.
Izar batek ñirñirka
zaindari gau-kolkoan,
aika negartsuetan
atsekabez iñoan:

Nora zoaz gazte ori
itsukeriz zoroa...?
Urrezko lilluratan
galdu dozu geroa.
Biur zaitetz etxera
ameslari gaixoa,
an baidozu begira
maite zaitun usoa.

Itzul zaitetz kabira
zorionaren billa,
laga eziñezko amesak
portu-ondoko mutilla.
Antxe dozu asperenka
maitekor eta isilla,
malkoak begietan
Tala'ko neskatilla....

ILDOTIK ESKEAN

Laztan bat goiz-aizeari
eskatu neutsan arrenka,
eta berak emon eustan
eresi baten mirari.

Bitxi bat iturriari
illunbarko itzaletan,
eta artu neban dardarrez
malko baten edergarri.

Musu bat artizarrari
eskatu neutsan irrikan,
eta berak dizdiratsu
ñir-ñir baten emokari.

Suzmur bat ariztiari
eskatu neutsan goizean,
eta illuntzean ekarstan
basoko orbel egalari.

Urruma itsasoari
ames urdiñetan zala,
eta berak otzan-otzan
amaika ugiñen opari.

Ames gozoak loari
gau beteko magalean,
eta bialdu eustazan
begi ederrak maitalari.

Eresi bat errekar
mendian beera joiala,
eta entzun neban orduan
urretxindor baten sari.

Maitasun bat zeruari
etsiak jota nintzala,
eta berak emon eustan
emazte ona maitagari.

SAMUR ETA EZTIA

Mintzo baten eresia
aditzen dot biotzean,
eta urrumaren soiñuak
nekaturiko oroitzean.
Joale batek dei dagi
arratsaldeko otoitzean,
izarrak itzar daitezen
egun-argiak iltean.

Laiñoen artetik dantzut
joanaren olerkia,
sentitzen dodala nonbait
nire barruan argia.
Seaska batetik yator
samur-samur eta ezia,
ama zanaren obauba
atzoko miñez eria.

Gorde gura izango neuke
betirako oroitzean,
nire baitan laztantzeko
isil eta bakarrean.
Argi-miñez entzuten da
goizaldeko magalean
joalearen mintzoa
arginabarra agurtzean.

Nire umetaroko obauba,
zatoz, maitia, neugana,
artu dagidan barrero
askaren apa-laztana...!
Ego yaukalak ba'nitu,
laiñoan zear joana
asetuko neuke, asetu,
eresi ederren jorana...!

LARRAKO ZEZENA

Larrako zezena
gar bizi sutsua,
kemenez itsua
biotzez urena.

Erail izateko jaio zaran
zabaldiko jaun bildurbakoa,
egun baten eroango zaitue
poztu daiten gizoste zoroa.
Zatiz galduko dozu bititza
borborka isuriz odol beroa,
pairamen-aldi basati artean
aurkitu dagizun erioa.

Larrako zezena
zabaldiko izarra,
zangartasun garra
burrukan lenena.

Kaiolan eroango zaitue
zabaldiko gudari indartsua,
erri-jaiak alaitu daizuzan
zelaiko burrukalari uzua.
Korta zikin baten itxita
egongo zara, abere gaixua,
askatasun-miñaz larrituta
irrikan aize-laztan goxua.

Larrako zezena
gudari izukaitza,
bildurbako arkaitza
burrukan gorena.

Arratsalde eguzkitsu batean
asarrezko irakite bizian,
zapi bati erasoko dautsazu
oldar azkarreko ekiñaldian.
Txingote barregarria antzera
erabilko zaitue aidian,
zure indarrak makal dakizuzan
arratsalde gardeneko argian.

Larrako zezena
izadi-bitxia,
oldarti bizia
zangar eta zuzena.

Zaldi bat plazara sartuko da
zu baizen jopu zoribakoa,
oldar dakiozun arin baten
larradiko nagusi zoroa.
Aztamakil luze zorrotz batek
birzaurituko dautsu lepoa,
odolezko isurtze basatian
auldu dakizun soin sendoa.

Larrako zezena
amorrus eroa,
odolez beroa
igesan azkena.

Odola ibaika dariozula
begira dozu ziztalaria,
urrundik dei dagitsula anker
joan dakiozun jokaria.
Len artutako sarraski-ondoan
egingo dautsu beste zauria,
or-emenka ibilliko zarala
baretzeke oiñaze izugarria.

Larrako zezena
zu bai errugea,
zelaiko erregea
iltzer dan aiena...!

Erio-sukar batek artuta
makalduko yatzu begimena,
bein da barriz zapiaren aurka
galdu ezin zure endako kemena.
Abo edegitik odola isuriz
ezpata izango da zure azkena,
murrusaka jaurtiko dozula
amaiaren eriotz-asperena.

Larrako zezena
betseñez illuna,
izarren kutuna
Jainkoen naiena.

Zenbaiten pozgarritzat il dabe
larradiko zezen baltzarana;
azkeneraiño burrukan jausi da
zelaiko txirlarri ederra zana.
Adar zorrotzak gorantz begira
an dago are odolduan etzana,
geldi ta isillik artzen dauala
ozkorri yaukalaren laztana...

ARIÑENA

Eguratseko gaillurretan
ezustez dager arranoa,
tximista bizia bai'litzan
ortzi urdiñeko jaun arroa.

Ibarrean gora joranez
azkar dator didar zorrotza,
tontorrik-tontor mezulari
laster urbiltzen dala arrotza.

"Nor ni baiño ariñago" esanez
orruz dabil oiñezturia,
ikara gorria zabalduz
asarre biziko aiuria.

Otoitza, baiña, ariñagoa;
ozta-ozta sortu biotzean,
betirako irarrita dago
Jaungoikoaren oroitzean.

IZAR BATERI

Aingeru baten magalean
aur-amesak izan zituan,
itsasoak laztandutako
eguna joaten dan orduan,
eta izartxuen-krisailluak
piztuten dirala zeruan.

Kaioen musuak,
itsasoko aparrak,
Zumaia'ko ondarrak
bizi ta gartsuak.

Txikia ta apala zan soiñez,
erri-maitasunez andia,
itzaletan izan genduan
gabeko artizar gidaria,
gure artean sakabanatuz
irakaskintzaren azia.

Joan da isillean
bizitza-bidetik,
joan da gugandik
dei baten jarraian.

Aditu eban biotz-barnean
euskeraren dei larria;
eriotz-didarra zan
oiñaze baten aldarria,
suntzitu nai ez duanaren
erri baten bizi-egarria.

Euskera maitea,
erriko lilia,
Errauskiñe aantzia,
au bai naigabea ...!

Erein ebazan eskuzabal
itxaropen-ames argiak,
piztu zituan umeakan
euskal joran garbi-garbiak,
eta ekaitza sortu zanean,
gagoetan dizdir biziak.

Argi-izpi illuntzean,
goizaldean izarra,
euskaltasun garra
beti biotzean.

Gipuzkoa'n jaio zan pitxia
Bizkaia'n datza zeru-begira,
isillik joan zan mundutik
eriotz-aindiko aberrira,
baiña gure oroitzean beti
bizi izango da gure Elbira.

Gilpuzkoa'n bii
Biakaia'n izarra,
au gure nigarra
Elbira maitia...!

Agur eta laster arte
andereiño argi ta azkarra,
gurekin izango al da beti
zure ereduaren indarra,
onik atara dagikegun
gure mintzaira maite zaarra...!

Larri dot biotza,
begiak negarrez,
bioatzu oiñazez
ai! baten oroitza.

Andereiño Elbire Zipitria'ren goratarrez.

LUMATXUA

Udabarriko magalean
isillik dago nire baratza;
osto barik ta naigabez
agertzen yat arkakaratsa,
nonai ikusten dala murriz
neguko besarkada latza.

Leku guztietara eldu da
udalen beteko zantzua,
baiña nire baratza txikiak
badarra betiko negua
larrosa ta txoririk bage
illerrri geldi ta mutua.

Udabarrian jaiotzen
eta biar da nire eguna,
baiña emen ez dot idoroten
len oi neban alaitasuna.
Gaur dana agertzen yat, ai ene...!
bizitza barik eta ituna.

.....
.....
.....

Illuntzean lotan egoan
basoko urretxindor gautarrak,
aditu ebazan amesetan
ume gaisoaren negarrak,
ezustez sentitzen ebala
larritasun baten zirarrak.

Mokoaz luma bat erauzi,
eta emon eutsan aizeari
eroan egian arinka
baratzeko ume gaixoari,
txoriak irauten ebala
gau osoan zear kantari.

Arkakaratsaren gaiñean
kokatu zan luma biguna,
antxe bertan sortzen yakola
larrosa yaukal gorriduna,
eta goizaldean entzun zan
txori baten eresi kutuna...

Udabarriko itxarkundean
mutiko itunaren baratza,
lora ta txintakaz gaiñezka
piztu zan eder eta aratza,
uxatzen zala bein betiko
neguko besarkada latza.

ETORRIA (IRADOKIA)

Didar bat aditu neban
goizeko altzoan joranez,
deika bizitan yatordala
argiaren eder-miñez.
Aize-egoetan joanda
aurkitu neban azkenez,
baiña itzali yatan nonbait
asperen baten ariñez.

Entzun neban barriz ere
oianeko itzalgunean,
dei egistala maitetsu
eguberdia zanean.
Mintzoak erakarrita
ara joan nintzanean,
ez neban oartu baiño
antzi bat eguratsean.

Etorri yatan ostera
illunabarko odoletan,
argia suntziten zala
nekaturiko itzaletan.
Joan nintzakion azkar
gau-leneko besoetan,
baiña arakoan, ai ene...!
galdua zan illunetan.

Arimara zatozkidan
asperen igeslaria,
gel bedi ene biotzean
zure soiñu maitaria.
Zaitetz nirekin betiko
eresi suzmurlaria,
eroan nagizu gora
itxaropen-aldarria...!

Izarren negar-artean
igesi joian antzia,
mintzatu yatan orduan
samur-samur eta ezitia:
"Ni naz oiartzun galdua,
amesen itxarkundia,
nonai suzmurretan doan
olermenaren izpia...

Bideetan zear noa
edertasun-ereinlari,
eresi isiltsutan deika
gora-miñez doanari.
Gorde naizu biotzean
ildo aztuen olerkari,
bidetik izan nakizun
ames yaukalen sorkari".

ZARTZAROKO ITUNTASUNA

Illuntzean aditu neban
oiñazezko negar etsia
aize-biotzean joiala
norabarik eta eria.
Min andi baten negarra zan
itzalen artean suntzia,
atsekabeturiko arima
larritasunak iruntsia.

Aren jarraian asi nintzan
gaba egunaz jabetzen zala,
edonon taigabe galdezka
norena ete negar apala.
Baiña aalegindu ba'nintzan be,
dana gertatu zan utsala,
illunpetatik aztamuka
billa ta billa niñoala.

Gau-aizeari itaundu neutsan
pairamen aren zergaitia,
baiña amesetan egoan
illundietan geldia.
Oian itzaltsuari orduan
norena izango zan antzia,
baiña ortzian zear begira
lotan zirauan isiltia

Ezustez, aditu zan garden
errekatu baten leiarra,
mendian beera jausten zala
oro zurrunbillo ta aparra.
Joan nintzakion iraduz
jabetu ezin nire dardarra...
eta zaballdiko bakean
azaldu eustan gau-negarra.

Arrasti isellean galduta
aditzen dan negar illuna,
oiñaze baten aiene da,
antzi larrien oiartzuna.
Gizadiak aztu egindako
betiko ostendu dan zoruna,
eguzki-argiak utzitako
zartzaroko ituntasuna...!

ORBELAK GALTZEAN

Bidariak:

Zergaitik orren itun
neskatilla txairoa,
zergaitik betseiñetan
negar baten laiñoa...?
Bideko loratxua,
mendiko argi gozoa,
txukatu bein betiko
begi ederren malkoa.

Gaur lako arrasti baten
maitasun-ziña egiñik,
urrundu zan, ai ene...!
galdu yatan bidetik.
Arrezkero ez da agertu
ostenduta nigandik,
emen nagola miñez
oroitzetan bakarrik.

Aizeari ditauntsat
isillaren orduan,
ia nigandik urrun
aztu egin ete nauan.
Erantzunik ez iñon
egurats illunduan,
bakerik idoro ezin
minduriko barruan.

Lorek ekarten daustez
zabaldiko asperenak,
usañezko eresitan
niretzat kutunenak.
Illuntzean dantzudaz
oiñen ibilte ozenak...
etxerako bidean
deslai doan batenak.

Atadiko txoria
papar gorri urreduna,
isildu da gaixoa
naigabetan ituna.
Ez daust ezer esaten
geldi-geldi ta illuna,
urrutira begira
galdurik erantzuna.

Bart ames egin neban
naigabetan etsia,
aztu izan ninduala
bestek erakarria.
Jaurti neban orduan
minduriko aldarria,
begiak negar baten,
oiñazetan larria...

Bidariak:

Berak ez dau merezi
zure irrika bizia,
emon beste bateri
biotzaren bitxia.
Neguan orbelak lez
joango yatzu zauria,
ta zeugan itxartuko
joran bizi barria.

Nire orbelak galtzean
ate-ondoko bidaria,
nork sortuazoko neugan
diñozun miraria...?
Non idoroko neuke
orduko maitaria,
nork ni ederretsiko
bideko ibiltaria...?

Bidariak:

Etorriko niaitzu
zure orbelak galtzean,
biurtuko niaitzu
udabarri betean.
Deituko dot orduan
zure egoitzako atean,
eta gerturik ba'zengoz
ar naizu biotzean.

Begira izango nozu,
ildoko bidaria,
noiz etorriko yatan
biotz-udabarria .
Begira izango nozu
loreak lez argia,
edo mendiko edurrak
goizaldeko eguzkia.

ZORION-BILLA

– Zeren atzetik zoaz
ameslari gaixoa,
zertarako orren arin
eta iraduz zoroa...?

– Zorion-billa nabil
azkar eta larria,
non baretuko yatan
arimako egarria.

– Zure egarriarentzat
ez da iñongo iturria,
ames zorotan zabiltz
nire bidekaria.

– Idoroko dot nonbait
igurikan dodana,
eta orduan niretzat
bere ezpanen laztana.

– Ameslari zoroa
ez urrutira joan,
nai dozun zoriona
billatuizu barruan.

Billatu zure baitan
irrikatzen dozuna,
maite egin izadia
ta onen irauntasuna.

Xumean dozu giltza,
gai txikitan bidea,
baiña oroz gain billatu
arimaren bakea.

ITURRIKO LEIARRA

Gaba suntziteko zorian
il da urretxindor baltzarana,
iturriko suzmur biziak
oroz gain maite zituana.

Iturriko leierra doa
zabaldian beera negarrez,
erostak isuri ta isuri
jabetu-eziñeko naigabez.

Mendi-beera doa jauzika
negu latza baizen ituna,
billakatu baida gaixoa
gau-txoriaren alarguna.

Malko baltzak disuriz gabaz,
goizaldean negar zuriak,
ta eguna joaten danean,
bakartasunezko aiuriak.

Isildu da iturriko antzia
goizalde-garaian mutua;
ostendu da leiar gardena
oiñaze latzak agortua.

MALKO-IZARRA

Izar barri ederra
zeruko bitxia,
nor zaitut gabeen
orren isiltia...?
Orain jaio zaran
altiste garbia,
zer zabiltz ortzian
ain geldi-geldia...?

Ñir-ñirka polliki
zeruko bakean,
oiñazetan zakust
goiko magalean.
Esan kutun orrek,
bideko isillean
zerk mintzen zaituan
gogo-biotzean.

Negarretan zakust
an goiko zerutik,
izarñoek, baiña,
ez dabez malkorik.
Ez egon, maitia,
naigabez isillik,
esaidazu dana
biotz-iturritik.

Ni nozu, bidari,
oiñaze-asperena,
semea galtzean
aiene gorena.
Naigabe asko dago,
baiña ama batena,
munduan daiteken
miñik andiena.

Zeruari arrenka
geisorik zanean,
aren orde z nerau
eroan nengian.
Alperrik, ai ene...!
atzo egunsentian,
joan zan betiko
aingeru-jantzian.

Jainkogana noa
oiñaze-egoetan,
aringarri-billa
aren besoetan.
Ez nozu, bidari,
izar bat argitan,
amaren miña naz
aiene bizitan.

Izar barri ederra
txirlarria zana,
biurtu zan goian
maitasun-laztana.
Bajoian zerura
zuzen Jaunagana...
bera zan gabean
amaren jorana.

DILIN-DALAN

Il da erriko maisua
goizaldea sortzean,
itzali da gozoki
bidaldia amaitzean.

Oe-buruan dago
bere alaba kutuna,
bestaldean negarrez
etsitako alarguna.

Isiltsu ta itun dago
txoria kaiolan,
ugazabaren txerak
orain uts emotean.

Gozoa zan maisua,
beartsu ta otzana,
aren etxeko ogia
latz eta baltzarana.

Danek maite-maite eben
erriko maisu apala,
baita berak be umeak
adikor eta mazala.

Dorreko joalea
asi da, dilin-dalan:
"Il da gure maisua,
itzali da goizean".

Umeen aurpegiak
itun agertzen dira,
ikusten dala an-emen
malko baten dizdira.

Urteak eta urteak
emon dauz irakasten,
ume-adimen samurrak
maitasunez jagoten.

Ez dau alperrik egin
bizitzaren ildoan,
argiturik betiko
ikasleen geroa.

Orain maisua barik
erria ez da bardiña,
badirudi isillago
ta naigabez erkiña.

Joan da gizon ona
itzalita egunsentian,
atsedena izateko
araindiko aberrian.

Ari da illuntzerarte
joalea dilin-dalan:
"Otoi bat biotzean,
eta egun andirarte".

KABI UTSA

Txoko illun batean dago
ume-miñetan geldia,
etxeko seaska aztua
ames galduen kabia.
Atzo maitasun-soiñua,
orain ildako eresia,
negar isilla bai'litzan
an datza danek utzia.

Aingeru bat zirudian
etxeko ume baltzarana,
eguzki-printza lakoa
seaskatxuan etzana.
Bera zan egoitza osoa
argiz beteten ebana,
etorkiaren kimua,
itxaro baten laztana.

Bein baten ekaitzpean
argia joaten zala,
urbildu zan askatxura
eriotzaren itzala.
Aurra isildu zan betiko
enbor illaren zozpala,
ta seaska biurtu zan
ganbarako kabi utsala.

Ekaitza uluka danean,
seaska asten da negarrez,
ta aizearekin batera
aditzen yako didarrez:
"Seiña joan yatanetik
illunpean nago oiñazez,
betorkit aingerutxu bat
zorionezko irribarrez...!"

Txoko illun batean dago
ume-miñetan geldia,
negar isilla darion
etxeko seaska utzia.
Bera da gaurko itzaletan
lora zimelen ontzia,
bera da ikara otzetan
txori galduen kabia...

IRRIBARREA

Mundua alaitzera dator
eguzki-printz alakoa,
biotzak izan dagian
maitasun-argi beroa.
Zu zaitut eresi isilla,
itxaro baten geroa,
begi-ezpanetan sortzen dan
loraren atal gozoa.

Danak atsegiñak dira,
baiña areitan ederrena
iturri garbi bai'litzan,
ume errubako batena.
Lorrak uxatzen dituzun
goizalde baten aiena,
sar zakidaz arimara
zeruko dizdir gorena...!

Zure irribarre sortzean,
aingeru baten laztana
kokatzen yatzu ezpanetan
asperen baizen otzana.
Igesi dabil itzala
izu bizian joana,
lili bat agertzen dala
seaskatxuan etzana.

Sein baten irribarrea,
goizalde baten argia,
berez sortzen dan lorea,
pozezko bitxi garbia...
Dizdir egizu munduan
ur gardeneko iturria,
zugan idoro dagigun
galduriko egunsentia...!

ISILDUZ DOA...

Isilduz doa euskerea
baso-mendietan suntzia,
naigabez digaro gaixoa
uri nagusitan aantzia.
Aurpegian beera dario
samiñezko negar itzia,
ezpan odolgetuen zear
aienezko asperen etsia.

Egun sentian izan zana
erri baten mintzo yaukala,
illuntzeko ordu geldian da
igesi dabillan itzala.
Geuk semeok biurto dogu
galduriko oiartzun utsala,
negar ta aieneka datzan
bizibageko soin makala.

Mendietako bitxi ederra,
eusko izaeraren azia,
zurekin itzaletan dabil
erri baten gogo ezetsia.
Baztertu zinduguzanetik
ostendu zan gure etorkia,
itzali zan illundietan
gure itxaropen-eguzkia.

Isilduz doa euskerea
baso-mendietan suntzia,
naigabez digaro gaixoa
seme eskerbakoek utzia.
Aberria negarrez dago
sendatu ezin bere zauria,
aiene amaibakoan datza
baretu ezin bere intziria.

Mendi, baso ta zelaietan
aditzen da didar larria,
gero ta ozenago egiten dan
itxaropenezko aldarria:
"Emoiogun euskereari
maitasun-bizitza barria,
berarekin berpiztu daiten
Euzkadi, geren aberria...!"

Jalgi adi plazara
euskera neuria,
jatsi adi kalera
mintzaira bizia.
Biotzean aunat
maitasun-abia,
ta ezpanen artean
eresi garbia...!

BALE-ONTZIA

Ur andietan marraztuz ildoa
egan dagi iru-mastako txairoa;
aizea dau laguna,
artizarra kutuna;
oial-eresien artean doa
aparrezko zaldi zuri lakoa.

Uiñak joten dauz zezena bai'litzan
lorratza zabalduz itsaso erian;
aizearen agurra
eta uraren suzmurra,
itsaslarien entzumen garbian
soiñu gozoak dira arrastirian.

Badator gau geldi ta amesgarria,
izar urrundarien aldarria;
isillezko olerkia,
amesen pizgarria...!
Badirudi itsasoko txirlarria
illargi-besoetan ekarria.

Goizean, gorrimiñezko dolorez
aize-oialak arrotzen dira odolez;
itsasoko larrosa,
ozkorriko jainkosa,
kaio batzuk darralkioz adorez
biurtzen dirala errubi-kolorez.

Ler dagi trumoiak illunabarrez
itsasoa astintzen dala dardarrez;
ugñen amorrua,
ekaitzaren orrua...!
Izarrak igesi doaz bildurrez,
eta odeiak asten dira negarrez.

Noizbait ditzuri ekaitz izugarria
somatzen danean egun barria;
itsasoko suzmurak
oialetan agurrak,
eta ilten dan izar urrundaria
izango da itsastarren gidaria.

Ozkarbian suntziten da eguzkia,
eta urre biurtzen dala guztia,
mastatik aldarria:
lagunok, gure erria...!
An dager portuko tala zuria,
ames egindako askatxu guria.

Ur andietan marraztuz ildoa,
etxera dator bale-ontzi txairoa;
aizea dau laguna,
artizarra kutuna;
oialen suzmurren artean doa
abira itzultzen dan txori lakoa.

IRU IRETARGI

Illunez jantziriko eguna
urruntzen ari da negarrez,
orain biurtuta naigabez
argi zanaren alarguna.

Illundian iru iretargi
eguna ezabatzen danean,
iru bitxi zero isillean
arima-ondoan garbi-garbi.

Bata kokatu da ortzian
gau-gentzaren begiraria,
ta dizdir onen miraria
ostentzen doa goiztirian.

Bestea dager gau-lenean
urloko ispilluan bizia,
maiteminduaren antzia
kutunagana doanean.

Bide-ondoan irugarrena
oartzen dot nire gidari,
ildoan zear ari ta ari
dakarkidala itxaropena.

Illundian iru iretargi
agertzen yataz ildoan,
iru txirlarri biotzean
laztantzen nabe garbi-garbi.

GUDARIAREN AMESAK

Udabarriko ego yaukalak
laztantzen dabe nire abia,
odeibako ortzi gardenari
ibaika dariola argia.
Illuntzeko urrats nekatuan
nai bizitan nago suntzia,
biotzera sartzen yatala
gau bakartiaren antzia.

Baserriko abia
mendian etzana,
oroitzen laztana,
amesen argia.

Badirudi entzuten dodala
etxeko latsaren suzmurra,
etenbarik dakarkidala
goiko mendien agurra.
Uxa egizu nigandik urrun
gudako arriskuen edurra,
aztu dagidan une batez
inguratzen nauan makurra.

Gauko biotzean
amesetan noa,
irrikan zoroa,
biotza miñean.

Aize bigunak agurtuta
begira dot nire etxia,
uso zuri apala bai'litzan
ene urruntasunak eria.
Artu naizu arrats onetan
baserriko bitxi joria,
aldendu dakidan nigandik
eriotzaren aurpegia.

Usapal zuria
mendian etzana,
maiteen dodana
basetxe neuria.

Aita soloetan diardu
aleak ereintzen ildoan,
baiña gaurko bere jorana
moteldu egin yako gogoan.
Ni ikusi gura dau etxean
kimu barria bere alboan,
itxaropenak ereintzeko
urbiltzen yakon zartzaroan.

Ikusten dot makur
lurraren gaiñean,
orotza urrunean
isillik eta uzkur.

Ama ikusten dot sapaillan
alorretan zear begira,
noiz agertuko ete semea
so ta so egiñez urrutira.
Joan nintzanetik, laztana...!
ito yako biotz-pilpira,
eta oiñazearen-oiñazez
itzungi begien dizdira.

Badakust gogoan
urbiltzen yatala,
irripar utsala
minduriko agoan.

Sutondoko txokoan dago
amamarem musu zimurra,
begiak utsari begira,
buruan urteen edurra.
Errosari-aleak eskuan,
ezpanetan betiko agurra,
zeruko Amak zaindu dagian
billobatxuaren adurra.

Bera zan gurean
goizaldeko izarra,
orain da nigarra
sutondo illunean.

Maite dodan aingeru ederra
ikusten dot lats-arrian,
malko mingots baten dizdira
agertzen yakola aurpegian.
Nigaitik jausita izango ete
arrasti isilleko garaian,
egunaren urre-dizdira
ilten dala zeru-sabaian...?

Bitxi bat ortzian
dagerkit negarrez,
sar bekit dardarrez
nire biotzian.

.....
.....

Badoa gaba ibilte illaunaz
goizaldeko argiak eria;
zeruari begira datza
guda-mutil ameslaria.
Lotan izango da benetan
tontorreko begiraria,
ala erio-txerak artuta
goizeko urretan eroria...?

Badator argia...
jagi adi lurretik,
jarri adi zutunik
eusko gudaria...!

OIÑAZEAREN EGOAK

Zeugana yoat, Jauna,
nire izate guztia,
billa ta billa beti
bear dodan argia.
Mundutik aztamuka
itsu-itsuan larria,
noiz idoroko dodan
zugandiko iturria.

Zeuganaño irixteko
egoak aizeari
erregutu neutsazan
etenbage arrenkari.
Baiña bere bakean
jaramonik ez niri;
amesetan egoan
oi legez suzmurlari.

Zeuganaño urbiltzeko
bear neuzan begiak,
jakintzari galdetu
sakon baizen argiak.
Baiña motelak ziran
liburuen niniak,
areikaz ikusi ezin
araindiko ur biziak.

Siñismen bear neban,
lorarik apalena,
artez billatzen dauan
iturburu gardena.
Idoro neban noizbait
irrikatzen nebana,
ustekabe eldu yatan
bultzatu ninduana.

Naigabea zan, Jauna,
zeuganako bidea,
bear nebazan egoak,
gorako argi betea.
Etorri zan ezustez
illuntasun-semea,
eldu yatan ankerra
ustebako oiñazea.

Egoak jarri eustazan
atsekabe larriak,
baretu zengidazan
arimaren zauriak.
Aurkitu neuzan, Jauna,
zugandiko iturriak,
oiñazean egozan
zeuganako bidiak...

MAITASUN EZIÑA

– Zergaitik orren itun
bide-ondoko lilia,
zergaitik orren isil
baso-lora txikia...?

– Malkoen alaba naz,
negar mingots batena,
biotzaren antzia,
maitasun-pairamena.

– Malkoak lilitxu ori,
diamante ederrak dira,
asperen isil baten
oiñazezko pilpira.

– Maitasun ezin batek
atzo sortu ninduan,
eguna amaitzen zala
illuntzeko zeruan.

– Argiak maite zaitu
loratxu eder neuria,
zu lako bitxirik ez
biotz-miñez eria.

– Ai, biurtuko ba'nintz
diamante zerutarra,
ostenduko litzakit
nire oiñazeen dardarra...!

Urrengo illunabarrean
joaten zala argia,
biurtu zan indatik
bideko olerkaria.

Iñon ez loratxurik
illuntzeko bakean,
malkoen diamantea
betiko joana zan.

– Non zagoz lilitxua
–asi zan bidaria–
Nora joan zintzazan
asperen maitaria...?

Arrastiko isillean
txindor baten mintzoa
onetaraxe asi zan
polliki ta goxoa:

– Ai, nire bidaria,
joana da, joana,
aizearen altzoan
gure lora laztana...!

– Maitasun-diamanteak
egan doaz ortzira
goietan biurtzeko
izar baten dizdira.

Bidari ameslariak
ikusi eban orduan
argi baten izpia
illuntzeko zeruan.

– Oi, maitasun ezifia,
oiñazeen nigarra,
biurtu zara noizbait
ames baten izarra...!

MAITASUNEZ IL ZAN....

Mintzo yaukala autsita isillean
itzali da olerkaria,
gure aberriko aldarria
ostendu da illarri baten pean.

Il egin da erriko urretxindorra,
joana da udabarrian,
lo baketsu ta geldian
akitu da aren mintzo illezkorra.

Bidariak jakin dauanean,
itaunka dabil ildotik
zergaitik orren gazterik
itzali dan betiko isillean.

Ez dator iñondiko erantzuna
inguruko zabalditik,
oro datza isil-isillik
eriotz-naigabetan ituna.

Ezustez aditzen da abarrean
aizearen abestia,
sentipen biziz eria
olerkari joana oroitzean.

“Sortu ebazan adorezko garrak
erritarren biotzian;
lotan zan bere aberrian
askatasun-sentipen goitarak.

Entzun egistazu, bidaria,
il egin zan maitasunez,
edertasun-egarmiñez
itzali zan gure olerkaria...”

AMAMAREN OBAUBA

Lo egin nire maitia,
amamaren zoruna,
gau isilla baidator
asarrez eta ituna.
Besana baltzaz dabil
naigabetan astuna,
ezustez irusteko
gure etxeko kutuna.

Itxartuten asi da
kobako saguzaarra,
gabean eizatzeko
gosei ta azkarra.
Aidean zear dirudi
illuntzeko dardarra,
taigabe sigi-saga
sagu-txori gautarra.

Kebidetik sartzen da
Anboto'ko sorgiña,
erratz-gaiñean dator
sapatsu ta zikiña.
Itxi egizuz begiok
zeru-zati txikiña,
arrapatu ez zagizan
leizeko mutxurdiña.

Entzun an urrutian
otso baten aulia,
zu irusteko gerturik
billobatxu neuria.
Ezkutatu burua
ta egizu lo-irudia,
atzipetu dagizun
piztitzar basatia.

An, ortziko sabaian
gaba jantzi da baltzez,
eta izar urrutiak
ikara ta ikara otzez.
Zeru-leioak dira
dei ta dei maitasunez,
edo aingeru-begiak
umeai irribarrez.

Illargia agertu da
zeruko gentzapean,
biribil eta argitsua
talo baten antzean.
Lo egiten ba'dozu
gabeko gentzapean,
zidarrezko txera bat
zuretzat goizaldean.

Izarren laztanpean
lo dago nire umia,
irripar ezpanetan
amesaren lilia.
Aingeru batek dakus
gure seintxu maitia,
eta orduan damotso
musu baten saria.

AMESEN-ERIOITZA

Errekan beera ikotika
galtzen da lora gorria;
negar baten doa
naigabez gaixoa,
bitsezko zurrunbillotan
jaurtiten bere aldarria.

Gazte batek autatu eban
ederrera baratzean;
txairo ta mazala
lora zan yaukala...!
Dardar gozoz maiteari
emon eutsan illuntzean.

Urre-zale zan neskeak
errekara bota asarrez;
loratxu gaixoa
uretan itoa
bajoian mendian beera
zatitzen zala naigabez.

Luzedun kiderra autsirik,
lora-atalak bananduta,
larrosa gorria
maite-ezaugarria,
ibarreraiño jauzika
iritxi zan apurtuta.

Lora-atalak bajoiazan
urgeldiko bake-loan,
malko illen antzera
ur-joairan beera,
astiro bira-biraka
eriotz-zurrunbilloan.

Gazteak begiztatu eban
naigabez jota ertzetik,
igaroten zala
bere eskintza apala,
zati askotan autsita
urgeldiaren bidetik.

– Nire eskintzaren amaiak
apurtu egin daust biotza;
–gazteak iñoan
oiñaze zoroan–
Odolezko atalok dira
nire amesen eriotza...!

ATZO-MIÑA

Nora iges egin zenduan
nire gaztaroko urrea...?
Idoro eziñik bainabil
zugana doan bidea.

Jalgi ziran banan-banan
zure egutegiko orriak,
galduta ordutik, ai ene...!
nire ames laztangarriak.

Asperen baizen igeskor
arin igaro zintzazan,
eta nik oartu orduko
joana zintzakidazan.

Nire besoen artean
betirako nai zindudan,
baiña illunabarko altzoan
utsa besarkatu nuan.

Orbel jausia bai'litzan
nire gaztaroa datza,
leiaz irrikaturiko
ames zoroen baratza.

Gaur atzoari ditauntsat
non gaztetasun neria,
baiña suzmurretan diraust:
"Nonbait, aldiak eria..."

Nora iges egin zenduan
nire gaztaroko urrea...?
Idoro eziñik bainabil
zugana doan bidea.

.....
.....
.....

Ai, atzo-miñez zabiltzan
billari gaixo nirea,
kendu gogotik amesok
arako ez baida bidea...!

OLERKARIA ODOLETAN

Il eben olerkaria
argia sortzen zanean,
udabarri yaukalean
jausi zan ameslaria.
Atzean orma zuria,
zortzi zibillak aurrean,
erori zan goizaldean
gure Lauaxeta andia.

– Isillik yatort eriotza
udabarriko goizaldean,
nire aberriko magalean
Jainkogana yoat biotza.

Gazte-gazterik joan zan
Euzkadi'ko urretxindorra,
errime, zintzo, gogorra,
bizitzaren goizaldean.
Betiko galdu genduan
bere oler-min maitekorra,
itzali zan ameskorra
udabarriko zeruan.

– Ortzian somatzen dot eguna...
Guda zital batek eria,
negarretan dantzut etsia
nire Euzkadi maite kutuna.

Goizaldeko itxarkundean
isildu ziran txoriak
gaztearen begi argiak
il-zorian ikustean.
An, urrutiko ibarrean,
ozkorriko izpi joriak
biurtu ziran zauriak
aiene isillak bai'liran.

– Txoriok, abestu zeruan...
ilten lagundu egidazue,
apa-laztandu nagizue
ur yabildan azken orduan...!

Zortzi eztrandak illerrian
uxatzen dabez txoriak,
zortzi naigabezko zauriak
agertzen dira ozkarbian.
Itxi dira goiztirian
Lauaxeta'ren begiak,
odol biziko olerkiak
sortu dira goiz-argian.

– Zortzi olerki gorri bizian
jarri dira ene bularrean,
zortzi larrosa eder-miñean
Jainkoaganako bidian.

Zeu lez erori ziranak
egin ei'dabe aberria,
eurok doguz euskarria
gure anai maite joanak.
Obi-kolkoan etzanak
gaztedi maitagarria...
au gure oiñaze larria
galdu genduzan laztanak...!

Euzkadi'ren alde bizi zan,
iraun eban beti abertzale,
Jainko ta erriaren maitale
il yakun bere udabarrian.

Baiña ez da il olerkaria,
bizirik darrai aizean,
geugaz dogu biotzean
aberriko ameslaria.
Bera zan olerki-abia
arrastiriko bakean,
eta gaurko goizaldean
atzoko asperen garbia.

Agur, Lauaxeta kutuna,
aberriagaitik opari,
ames ederren abeslari
bioatzu ene maitasuna...

IÑONTZA

Naigabetan dagoz izarrak
gabeko besanapean,
malko itunak isurika
ortzi amaibako isillean.
Bitxi lotsatiak dira
urrundik etortzean,
izadi osoa laztanduz
illundiko biotzean.

Jauskera bigunaz dator
negar illaun baltzarana,
itzaletan besarkatuz
ames gozotan datzana.
Gabeko magal geldian
iñontza dator otzana
zabaldian ipinteko
izar galduen laztana.

Eta laztanok goizean
biurtzen dira bitxiak,
larradiak itxartean
edertasunez jantziak.
Gabeko negar itunak
jarritako malko eriak,
argipean dirudie
diamante garbi-garbiak.

ISILLAREN OTSA

Jaio ta ostentzen dira izarrak
argizko lorratz ederretan,
urrutiko asperen gautarrak
ortzian zear dardarretan.
Une bateko argi goitarrak
ilten dira bide isilletan,
eta illundian igeskorrak
amaitzen doaz itzaletan.

Badantzut eresi bakana
biotzaren sakonenean,
barrura yatordan laztana
isillaren otsa aditzean.

Negarretan dago basoa
osto neketsuak galtzean,
erostaka dago zoroa
adar billutsak sentitzean.
Joan da urretxindor gaixoa
babesaren billa erbestean,
galdurik bere abots gozoa
neguteko isiltasunean.

Badantzut eresi maitia
biotzaren sakonenean,
barrura yatordan antzia
isillaren otsa aditzean.

Astiro dator eresia
maitasun biziak sortua,
egan doa gorantz ezitia
zabaldian zear galdua.
Baiña barrutiko abestia
biurtzen da aiene mindua,
erantzunbako dei larria
ostentzean miñez zendua.

Badantzut eresi garbia
biotzaren sakonenean,
barrura yatordan zauria
isillaren otsa aditzean.

Malko bat galtzen da urrutian
itxaropen barik jaurtia,
bizi-naia galtzen danian
bakartasunetan aantzia.
Lora batek dakus goizian
intzaren artean jausia,
eta goizeko itxarkundian
laztantzen dau geldigeldia.

Badantzut eresi mutua
biotzaren sakonenean,
barrura yatordan musua
isillaren otsa aditzean.

Ildoan zear norabarik
banoatzue amesetan,
banoatzue isil-isillik
gogo-biotza edermiñetan.
Intza daror ene ingurutik
diamantiar negarra bai'litzan,
zelaiak estalduz geldirik
amaibako apa-laztanetan.

Badantzut eresi geldia
biotzaren sakonenean,
barrura yatordan bitxia
isillaren otsa aditzean...

ODEI GORRIZTAK

Odei gorriak dakustaz ortzian
eguneko eriotzaldia artzean;
norenak izango
norantza joango...?
Suzmur itoak dantzudaz aizean
argia ezabatzen asten danean;
Norenak izango,
norantza joango...?

Sointxu samur txikiak zatituak,
norberekeri eroak puxkatuak;
norenak izango,
norantza joango...?
Mintzobako eztarri gaixo mutuak,
eriotzari emondako sointxuak;
norenak izango,
norantza joango...?

Jaio aurretik eraildako opariak
billakatzen ei'dira odei gorriak;
norenak izango
norantza joango...?
Sointxu samurrak miñetan autsiak,
bizi-naiak sorturiko oiu etsiak;
norenak izango,
norantza joango...?

Ume-gaiok, aingeruen laztanak,
jaio bageko itxaro joanak;
lore-atal suntziak,
txoritxu eroriak...!
Darizuezan odolezko orbanak
gorritzen dabez odeien ezpanak;
lore-atal suntziak
txoritxu eroriak...!

Ez dozue ezagutuko argi-izpirik
ez eta amaren kolko gozo epelik;
lore-atal suntziak,
txoritxu eroriak...!
Ortzi-zear gorrimiñez jantzirik,
aizearen altzoan norabarik;
lore-atal suntziak,
txoritxu eroriak...!

Oiuz dantzudaz giza-eskubideak,
noiz zuenak aurgai errubageak...?
lore-atal suntziak
txoritxu eroriak...!
Euronak be badabez abereak,
noiz entzungo zuen bizibideak...?
lore-atal suntziak,
txoritxu eroriak...!

Ori egiteko gai zaran ama,
betiko galdu dozu errai-laztana;
bai larritasuna,
aren oiartzuna...!
Antzi bat etorriko da zugana
naiz lanean, naiz oean etzana;
bai larritasuna
aren oiartzuna...!

Noizean bein semearen didarra
adituko da latz eta zakarra,
oiuka odoletan
taupada zorotan...!
Alperrik izango orduko negarra,
ezin berpiztu erauzitako adarra
oiuka odoletan,
taupada zorotan...!

GOIZABARRA

Gabeko ildo galdutatik
ezabatzen da illargia,
naigabetan ilten dala
illuntze-miñez eria.
Egunaren bildur utsaz
aultzten yako aurpegia,
bere azkena somatzean
eguzkiak itzalia.

Goiztiriak garaituta
izarrak lo-gura dira,
eta illargi ederrari lez
makaltzen yake dizdira.
Bide-azkena sentitzean
gelditzen yake pilpira,
naigabetan abiatuz
begira daben obira.

Ortzi-izara baltza urratuz
jaioten ari da eguna
joran biziz agurtzeko
zabaldi maite kutuna.
Irripar antzean dator
uxatuz gabeko illuna,
izadiak ar dagian
argizko txera biguna.

Bizi-irrikaz zoraturik,
areitz tantaiko txoriak
jaurtiten ditu samurki
maitasun-txinta joriak.
Odoletan dirudie
bularko luma gorriak,
biotz-malkoak bai'liran
argi-miñez isuriak.

Gaba itunak abailduta
larri dabil bidaria,
baiña ara non datorkion
bizirako guraria.
urrutian igarten da
sortze baten miraria,
bitxi zoragarria dan
egunsentiko aldarria.

Izadian sentitzen da
urre-dardar gorrikara,
ozkarbian marraztean
bizi-miñaren indarra.
Goizaldeko argi yaukala,
olerkariaren sukarra,
sar zakidaz biotzera
nire amesen goizabarra...!

ILLUNABARRA

Eguna ilten da sukarrez
arrats gorriak eria,
negarrez aditzen dala
txori baten eresia.
Urrutiko itsasaldean
odoletan dago ortzia,
bere zauri izugarritik
igesi doala argia.

Ibarrean gora dager
ke nagi baten ildoan,
goian billatu naiean
zeru illunaren urloa.
Bera da goiko erraietan
ezbatzen dan garoa,
argiarekin batera
ilten dan ames zoroa.

Biotz-deiari jarraituz
dardarrez doa abestia,
ozkorriko magalean
billatuz bere kabia.
Urrutira egan egiñez
zearkatzen dau aizia,
laztan illauna lakoa
maitasun biziz eria.

An goietan jagiten da
mendiko tontor urruna,
noiz ikusteko zeruan
bere izar maite kutuna.
Arratsa ilteko zorian
an dager ñir-ñir biguna,
atx maitaleari igorritz
oba-oba baten urruma.

Urrats isilletan doa
atzen du dan bidaria,
ostentzen dala odoletan
ortziko argi-miraria.
Amestaldi zoro onetan
laztantzen dau izadia,
eta konturatu barik
biurtzen da olerkaria.

Eguna ilten da sukarrez
sor daiten illunabarra,
aditzen dala urrutian
intziri baten negarra.
Argi-eriotzean jaio da
txirlarri baten garra,
eta erdi-itzaletan dator
olermenaren didarra...

ATZERRIAN

Negarretan dagoz izarrak
itsas-araindiko gabeen;
euskotar baten oroitzean
aberri-miñezko didarrak.

Ostentzen da anotsa
pilpira leunean
entzuten danean
miñaren abotsa.

Amesetan sorturikoa,
indarraidi jarki-eziñean
dei bizia dator aidean
oroitz-miñetan zoroa:

– Sartu yat barrura
errirako naia...
Ur yabilt amaia...
au nire ullundura...!

– Gogoan daukat nire erria,
jaiotetxea biotzean,
azkena urbiltzen yatanean
nire gogoia dan larria...!

– Negargura etsia
nire begietara,
ene oroitzetara
oiñazezko antzia.

– Zoritzarreko egun batean
laga nebazan lats-ibaiak,
gal yatazan ibar-zelaiak
urruntasunaren utsean.

– Galdu nun argia
joan nintzanean,
galdu zan atzean
utzitako abia.

– Nire jaiotetxe urrutia
sartuta daukat biotzean,
baiña gaurko nire amaitzean
iñoiz baiño neure-neuria.

– Etxetxu galdua
bakean isillik,
nire arima eritik
oiñazezko oiua.

– Lats baten ur ereslariek
artzen ninduen gabeen,
laztan nengien amesetan
aingeruen ego zuriek.

– Askatxu txikia
laiñotan galdua,
atseden goxua
zatozkit, maitia...!

– Udabarriko goiz batean
laga neban jaioterria
bear gorriak jaurtikia,
etxea gaizkatu zeitean.

– Diru asko jaritsi,
orain zertarako...?
Orduan galdutako,
ai, ezin irabazi...!

Urrutiko gau isillean
malkoak darioz geldiak,
naigabe latzak isuriak
itxaroa galtzen danean.

Il zan erri-miñez
itsasoz aindian,
irrika bizian
il zan itzul-miñez...

BETI BEGIRA...

Neure ateraiño deika zaitut
zorion, bidaide bakana,
baiña edegitean, ai ene...
urrutira zakust joana...!
Noiz etorriko biotzera
izar igeslari laztana,
beti-beti zure begira,
zergaitik ez zatoz neugana...?

ITXARON NAIZU...!

Nire Jauna, ez dot betirako il gura...!
itxaron naizu bidez araindian,
garaiturik eriotz-illundura
alkartu naiten zurekin argian.

Irrikan nozu oreiñaren antzera
artzearren ur garden eta garbiak,
emoidazuz zeureak edatera
bare dakidazan joran biziak.

Bear zaitut, txoriak lez aizea,
jaio bainintzan zeugan biziteko;
amaitu dakidanean bidea,
artu naizu, Jauna, betiereko.

Bear zaitut gose-egarri bizian,
itxaron naizu bidez araindian...!